

Info  TXIPAK

Prozesadoreak baino gehiago

Bi ekoizle handien arteko borroka hainbat frontetara zabaldu da

Xabat Zabala

Lehendik ere orri honetan bertan mintzagai izan dugun AMDren eta Intelen arteko lehia bukaera gabeko borroka komertziala dela pentsa daiteke. Azken asteetan, borroka horretan ohikoak diren mugimenduak egiteaz gain, hain ohikoak ez diren neurriak ikusi ditugu. Aipagarriak dira maila altuenerako prozesadoreetan lortzen ari diren abiadurak eta ezauga-


rriak. Intelek Pentium 4 modeloarekin 2,53 Gh erloju maiztasuna lortu du, eta AMD, berriz, maiztasun horiek lortu ez badi-tu ere, azkarragoak diren prozesadoreak lantzeko gai izan da. Horretaz gain, hor ditugu bigarren mailako prozesadoreetan ezartzen ari diren ezaugarriak, edo eramangarrietarako eta bestelako gailuetarako eskaintzen ari diren aukera zabalak. Hauek guztiak ez dira, ordea, azken aldiko merkatu borrokan

pisu handiena duten armak. Azken hilabeteetan, AMD zein Intel nabarmenki aritu dira jaisten beraien produktuen salneurriak. Lehen ere, produktu ho-beak atera ahala, salneurriak jaisten ibiliak dira, baina azken boladan, inoiz ez bezala jardun dute, dudarik gabe.

Hala ere, etxeko konputagailuetako prozesadoreen merkata nahiko lotua daukate; eta beraien erronka nagusia erroak zabaldu eta merkatuaren beste esparru batzuk indartzera bideratua dago. Joera horren barruan kokatzen da Intelek duela bi aste aurkeztu, eta laster kalean egongo den Manitoba izeneko txipa. Beraien XScale txip multzoan sartzen duten honek, laster baten, funtzionalitate handiagoa emango die sakela-

ko telefonoei eta bestelako kable gabeko gailuei. Txip honek, besteak beste, aukera emango du kable gabe Interneten komunikatzeko eta musika entzuteko. AMDk, berriz, hurrengo urterako Opteron prozesadore berria iragarri du. Zerbitzarietarako eta etxeko ordenagailuetarako prozesadore iraultzailea izango omen da.

Azken batean, txip aukera horrekin hainbat esparru hartzen dituzte, eta honela beraien izenek indarra hartzea bilatzen dute bi handiek. Informatika eta konputagailuak ulertzeko modu berriak, prozesadore lanak gauzatzen dituzten txipak hainbat arlotan erabiltzea ekarri du eta azkartasuna lortzera bakarrik mugatzen zen gudan fronte berriak ireki dira.

Info  BIRUSAK

Mutante gaiztoak


Birusek bide berriak probatzen jarraitzen dute

Xabat Zabala

Birus alarma faltsuek egunero hainbat erabiltzaile nahasten jarraitzen duten garai hauetan, benetako birusen garapenak aurrera darrai. Egun hauetan, birusen munduan berrikuntza nabaria eragin duen Smile.D birusaren berri izan dugu. Honek, lehen aldiz, Windows eta Linuxerako baliagarri izateko xedea du. Orain arte, aldi berean Windows eta Mac inguruneetara egokitzeko gai ziren makrobirusak ezagunak baziren ere, aldi berean Win eta Linux inguruneak infektatzeko gaitasuna duen birusetan lehena dugu honako hau. Birusen eboluzioa gaur egun teknika mailan baino gehiago trikimailu mailan oinarritzen ari da. Smile.Dk berak ere gaitasuna du formaz aldatzeko, era askotan ez-

kutatzeko eta hainbat erasobide probatzeko. Beraz, bi plataformetan lan egiteko gauza izateaz gain, azken belaunaldiko beste birusen antzekoa da.

Bestela, birusei dagokienez, Klez birusak lortu duen zabal-kuntzak eta Kazza musika-trukerako zerbitzuak zizare motako birusei ematen dizkien hedabideak izan dira hizpide. Klez birusari dagokionez, bere aldaerak -Klez.E, Klez.H ...- inoiz lortu diren infekzio handienak lortu dituztela argitaratu dute.



Bestetik, argi adierazi ez bada ere, Kazza programa ospetsuak dituen segurtasun akats batzuk direla medio, birusak banatzeko tresna bezala erabali dutela adierazi dute. Ez da hau horrelako programen artean arazoa eman dituen bakarra. Izan ere, fitxategi trukerako balio duten eta Internetera zabalik dauden programa hauek arazoak dituzte segurtasuna bermatzeko. Ez hori bakarrik, kasu askotan, interes batzuk direla medio, hutsune horiek nahita eragindakoak direla ere esan izan da. Bestalde, multimedia transmisioen gorakadaren ondorioz, birusek esparru honetan hedabidea aurkitzea ere ez da oso arraroa.

Irakurlearen iritzia

 Aitor Olaizola

Ordenagailua gorroto dut

Ez, ez. Ez pentsa konputagailuak gorroto ditudanik. Teknologia berrien jarraitzaile sutsua ere ez naiz, baina tresna berri hauek ondo erabiliz eragozpenak baino onura gehiago dakartzatela uste dut. Aukeratu dudana izenburu horrekin aparailuekin baino izendatzeko moduarekin dudana desadostasuna adierazi nahi dut. Izan ere, ez dut uste konputagailua ordenatzeko gailua denik eta hori uler daiteke «ordenagailu» deitzen badugu. Espainolek horrela izendatu dutela eta mailegu hori hartu nahi dugula? Ba kasu horretan, «ordenatzeko gailua» ideia baino beraiek erabiltzen duten izena bere horretan hartzeko aukeraren alde egingo nuke, «ordenadore» erabiliz. Zentzu horretan jatorria aztertu gabe gure auzokideek konputagailuak izendatzeko erabiltzen duten hitza mailegatuko genuke, baina ez hain traketsa den ideia. Agian Euskaltzaindiak «ordenagailu» hiztegi batuan sartzeko egin duen gogoeta ezagutuko banu, beste era batera pentsatuko nuke, baina bien bitartean aukera desegokia dela pentsatzen jarraituko dut. Egia esan, nik ez nuke «ordenadore» lehenetsiko, ezta «ordenagailu» ere. Nire ustez, mundu guztian hedatua dagoen «konputatu» aditza hartu eta «konputagailu» erabiltzea da egokiena. Euskaltzaindiak onartzen duenez eta aurrekoen sinonimoa denez, zentzuzkoena azken hau dela uste dut. Hala ez dira sinonimoak?

info  gogoeta info  gogoeta

1984an bizi nahi ez dutenak

Maiatzaren bukaeran, informatika erabiltzaileak kontrolatzeko beste lege egitasmo bat onartu berri du Europako Batasunak. Honako honetan, aurrera egin da informazio transmisioetako datuak gordetzeko eta aztertzeak gobernuek izango duten aukeretan. Beste behin, askatasunaren murrizketa honen inguruan, informatika erabiltzaileen zati handi batek bere kezka adierazi du. Orwellek 1984an (etorkizuna) anaia handi batek kontrolatzen zuen mundu bat erakutsi zuen bezala, egungo bidea salatzen duten mundu horretara zuzentzen ari garela diote. Egoera kezkarria bada, are kezkarriagoa da urte batzuetatik hona izan den erantzun aldaketa. Lege hauen aurka ageri direnak oso kezkatuta daude bigarren honengatik. Horrelako legeak eta erabakiak ohiko bihurtu dira; eta, ondorioz, hauei aurre egiteko joera ere ahultzen ari da. Hasieran, oro har, neurri hauek salatu egiten baziren ere, astiro-astiro, ohitu egin gara, eta neurri hauei aurre egiterik ez dagoen ideia zabaldu egin da. Alarma gorria piztu, eta askatasuna zapaltzen dutenei hortzak erakusten jarraitu behar dela adierazi dute protesten buruan kokatzen diren informatika erabiltzaileen elkarteek. Arrotzak egiten zaizkigun mugimenduen hauen guztien aurrean zer jarrera hartu behar dugun pentsatu beharko dugu, beraz; bestela, konturatu orduko, Orwellek ere irudikatzen jakingo ez zukeen egoera baten aurrean aurkituko gara.